

## **TAO makina berriak irisgarritasunean eta jasangarritasunean hobekuntzak ekarriko dituzte**

*Eysa enpresari esleitu zaion aparkatze arautuko zerbitzuaren kontratu berriak 33,5 milioi euroko aurrekontua izango du hurrengo 6 urteetarako.*

Donostiako Udalak zenbait hobekuntza jarri ditu abian eremu publikoan ibilgailuak aparkatze arautuaren zerbitzuan (TAO), erabiltzaileei erraztasunak emateko helburuarekin.

Zerbitzu berriaren aurkezpenean, **Pilar Arana** Mugikortasuneko zinegotziak nabarmendu duenez, “TAOren kudeaketarako kontratu berri hau aurrerapauso garrantzitsua da garai berrietara egokitzeko; izan ere, teknologia berriek herritarren eguneroko bizitza errazteko aprobeztatu behar ditugun abantailak eskaintzen dizkigute, hiri irisgarriagoa eta jasangarriagoa eginez”.

Eysa enpresari hurrengo 6 urteetarako esleitu zaion kontratu berriaren nobedade garrantzitsuenen artean aipatu behar da makina zaharrenak eguneratuko direla, eta horien orde, funtzionalitate berriak izango dituzten eta kudeaketa askoz bizkorragoa ahalbidetuko duten beste batzuk jarriko direla.

### **Makina erabilerrazak**

Mugikortasun zuzendaritzak 307 makina berri jarriko ditu Cronos modelokoak, zaharrenak ordezkatzeko, eta nahiko berriak direlako kenduko ez diren 56ei batuko zaizkie. Horrela, guztira 363 makina izango dira hirian banatuta. Makina berriak abenduaren hasieran jartzen hasiko direla aurreikusten da, eta hurrengo lau hilabeteetan haien funtzionaltasuna areagotuz joango da, kontratu berri honi esker. Kontratu horren urteko aurrekontua 5.455.043 eurokoa izango da lehen hirurtekoan, eta 5.727.795 eurokoa bigarrenean.

Parkimetro modelo berri horrek zehatz-mehatz betetzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Irisgarritasunari buruzko Legean ezarritako irizpideak. Mugikortasun murriztua duten pertsonak, gainera, informazio garrantzitsua izango dute beraientzat erreserbatutako plazetan aparkalekua aurkitzeko. Plaza horiek doakoak dira “MM” udal txartela duten ibilgailuentzat eta Ezgaitasuna duten Pertsonentzako Aparkatzeko Europako Txartelaren bidez identifikatutako ibilgailuentzat. Izan ere, plaza horiek guztiek sentsoreak izango dituzte, haien okupazioa denbora errealean ezagutzeko.

Makinek zenbait funtzionalitate dute, hala nola, ukipen pantaila, kolorean eta 10,1 hazbetekoa; eguzki panel orientagarria; EMV ordainketa sistema, eta QR eskanerra. Horrek guztiak, ParkXplorer sistema berriarekin eta TAO sektoreen sentsorizazioarekin batera, hainbat hobekuntza eskainiko dizkie erabiltzaileei, esaterako, ibilgailuetan tiketa fisikoa jarri beharrik ez izatea, salaketak zuzenean ordaintzea, deskontu bonuak irakurtzea edo okupazioari buruzko informazioa denbora errealean eskuragarri izatea.

### **Digitalizazioaren aldeko apustua**

Udalak teknologia berriei ahalik eta abantaila handiena ateratzeko egiten duen ahaleginari esker, makina fisikoen kopurua %24 murriztu ahal izango da. Murrizketa hori digitalizazioaren aldeko apustuari zor zaio, bere zerbitzuen kudeaketa errazte aldera, bere kudeaketak telematikoki egiteko gero eta joera handiagoa duen gizartera egokitzuz, horrela irisgarritasuna eta jasangarritasuna sustatuz.

Makinak modernizatzeari esker, erabiltzaileek zuzeneko hobekuntzak izango dituzte; adibidez, saldo birtualen kudeaketaren bidez ibilgailua “desaparkatzeko” aukera (zerbitzu hori dagoeneko eskuragarri dago *EIParking* mugikor bidezko ordainketaren aplikazioan). Horrela, erabiltzaileak, sisteman erregistratu ondoren, kontsumitu gabeko zenbatekoak metatu eta hurrengo eragiketetan erabili ahal izango ditu.

Parkimetro berriek eskaintzen dituzten hobekuntza horiek guztiak hertsiki lotuta egongo dira *EIParking* mugikor bidezko ordainketa aplikazioa eguneratzearekin. Aplikazio hori zerbitzu berriekin osatzen da, hala nola plaza libreetara gidatzeko sistema batekin edo aparkalekuen okupazioari buruzko informazioarekin (mugikortasun murriztua duten pertsonak, zamalanak, konexio aparkalekuak edo autokarabanen zerbitzu eremua), bai eta zerbitzuari buruzko abisuekin eta informazioarekin ere (bertakoentzako baimen bereziak, gertakariak, etab.). Gainera, sistema honen bidezko tarifaren prezioa makina saltzaileko ordainketarekin parekatuko da.

Aplikazio horretan egindako aurrerapenak dira kontratu berriaren indarguneetako bat; izan ere, Aranak adierazi duenez, haren erabilerak “hazkunde handia izan du 2014. urtean ezarri zenetik, eta nabarmen egin du gora konfinamendu aldiaren ondorengo hilabeteetan, osasun-segurtasuneko neurrien ondorioz”. Izan ere, gaur egun, erabiltzaileen % 35ek ordaintzen du modu horren bidez, makinetan, berriz, % 24k, eta eskudirutan, % 41ek. Esaterako, 2020ko udan, *EIParking* aplikazioaren erabilera %12,4 hazi zen aurreko urteko epe berarekin alderatuta. Hala, aurtengo ekainean, uztailean eta abuztuan, 328.052 erabiltzailek (matrikulak) erabili zuten aplikazioa.

Gainera, aparkalekuaren kontrola matrikulen irakurketa elektronikoaren bidez egingo da; horretarako PDAk erabiliko dira, kontrola oinez ibiltzen diren langileek egiten badute, eta OCR kamerak, autoz ibiltzen badira.

### **Mugikortasun jasangarria**

Mugikortasun zuzendaritzak apustu handia egin nahi izan du iraunkortasunaren alde zerbitzuaren alderdi guztietan, eta hori makina saltzaileetan bertan islatzen da, erabat autonomoak izango baitira, eguzki panelek ematen duten energia berriztagarriaren osagarriari esker. Gainera, ibilgailu elektrikoetarako kargagune bihurtzeko aukera eskaintzen dute, eta, horri esker, hiriko karga sarea handitu ahal izango litzateke, gaur egun eremu publikoan 6 puntu dituena.

Horietako 14 makinak ingurumen sentsoareak izango dituzte, sektoreen kutsadura neurtzeko eta emisio kaltegarrien irudi erreala emateko. Emisio horiek zerbitzuak berak saihestuko ditu, izan ere, aparkatzea kontrolatzeko ibilbideak egiteko erabiliko diren 8 ibilgailuak %100 elektrikoak izango dira.

Aurreko guztiari gehituta, herritarrentzat eskuragarri egongo den denbora errealeko informazioari esker, aparkaleku bila alferrikako ibilbideak murriztu ahal izango dira, eta mugikortasun iraunkorragoa ahalbidetuko da.

### **Erabiltzailearentzako informazioa**

Aplikazio mugikorraren bidez emango den zuzeneko informazioaz eta Udalaren web orrian egongo denaz gain, arreta zerbitzua eskainiko da Erabiltzailearentzako Informazio Bulegoa Antigua auzoan (Resurreccion Maria de Azkue 6, 3. A), astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:30era eta 15:30etik 20:00etara (larunbatetan, 9:00etatik 20:00etara), eta zerbitzua luzatuko da ordutegi horretatik kanpo, 943458822 arretarako telefonoaren bidez.

*Donostia, 2020ko urriaren 23a*